2004-III-5
Número **130.** zenbakia

ELA

astekaria

# EDITORIALA

## Navarrismoa nabarmen

Sanz, Gurrea eta del Burgoren UPNk *navarrismo*a du ikurtzat, Nafarroa eta nafarrak omen dira alderdi honen politikaren neurria eta helburua. Piska bat estutuz gero, ordea, argi uzten dute ustezko Nafarroaren lehentasun hori Espainiako batasunaren eta estatu-indarren menpeko dela beti; sutsu defenditzen dute Euskal Herriko gainontzeko egitura politikoekiko independentzia eta aldendu beharra, baina azken finean nafarrek ongizatea bandera gorri-horiari zor diotela argi uzteko.

Horixe da UPNren eta *navarrismo*a gogoz besarkatu duten beste politikari zein alderdi batzuren kontraesan eta hutsune nabarmena, ez baitute onartzen duela hainbat mende askatasunaren berme ei den estatu espainola erresuma zaharra indarrez hartu eta zanpatu zutenen oinordeko dela, hots, nafarren burujabetza politikoa desegin zuten haien ondorengoa.

Sakoneko kontraesan horrek –aitzindari nafar ez baina Espainiaren morroi izateak– beti era berean jokatzera bultzatzen ditu: Zalantzan, Madrilera begira jarri eta hango indarren beharrizanei men egitea (estatuko auzitegiek aurkakoa agintzen dutenean ere).

Horixe egin du orain Sanz gobernuburuak: ELAri Auzitegi Gorenaren bi epaiek ordezkaritza gehieneko estatusa aitortu dioten honetan, UPNko buruzagiak gutxienez 1.500 ordezkari izan beharra aipatzen du –askatasun sindikalaren legeak estatu osorako ezartzen duen baldintza–, eta beraz, ELAk ez duela sindikatuek parte hartzen duten erakundeetan tokirik (CC OOek ere ez du horrenbeste ordezkari).

Navarrismoa berriro ere nabarmen: Sanzen logikaren arabera, posible litzateke sindikatu batek Nafarroan Espainiakoek baino ordezkaritza handiagoa –CC OOrengandik oso hurbil dago ELA– izanik, Sanzen bahe estua ez pasatzea. Arrazoia eta epaiak alde izatea ez da aski (behar izanez gero, aldatuko dira testuak). Bejondeiela, aniztasuna guztien gainetik jartzen omen duten horiei!



## ELAren ekitaldiak martxoaren 8a, emakume langilearen nazioarteko eguna dela-eta

# BERDINTASUNA BORROKAK BIZI DU

**Irungo Clece, Basauriko eraikinen garbikuntza (FCC), Ariznabarrako egoitza, Maria Cristina hotela... Batik bat emakumeek lan egiten duten enpresa eta sektoreetan gutxieneko baldintza duin batzuk lortzeko ezinbestekoa da borroka, borroka gogorra gainera. Horixe erakusten digute azken urteetan izan diren eta egunotan irauten hainbat gatazkak.**

Martxoaren 8ko ekitaldietarako prestatu dituen gaiekin lan munduko prekarietatea gehien pairatzen dutenen egoera agerian utzi nahi izan du ELAk; aldi baterako enplegua, lanaldi partziala eta soldata eskasa jasaten duena gehienean emakumea da; gaztea bada, are gehiago. 2003tik hona egoerak ez baitu, greba luzeen ostean lortutako akordioei esker zuzendu diren kasu bakar batzutan salbu, hobera egin.

### DESBERDINTASUNAREN AURPEGIAK

ELAk emakumearen eguneko goizean hitzaldiak antolatu ditu, gainontzeko sindikatuekin bilkuretan eta arratsean manifestazioetan parte hartu aurretik. Goian aipatutako harira, Iruñeako hitzaldian, adibidez, Gizalan federazioko Amaia Aierbe antolakunde idazkariak pribatizazioen errealitatea eta arriskuak aztertuko ditu, lan-baldintzetan ekar ditzaketen kalteak handiak baitira. Gasteizen, berriz, Zerbitzuak federazioko Sonia Ontoriak hirugarren sektoreko egoera eskasari helduko dio, emakumearen enplegua arlo honetan biltzen baita gehienbat.

Langile-klaseak egin dituen aurrerapausoak beti borrokaren fruitu izan dira; emakume eta gizonen arteko berdintasuna iritsiko bada, horixe izango da bidea: Iruñeako manifestazioko lemak dioen bezala, "Zutik, emakumeok!". (2.orr.)




*Martxoaren 8ko mobilizazioetarako deialdi bateratua egin duten talde eta sindikatuok zabaldutako kartela.*

## ELA y LAB emprenderán una campaña por la normalización lingüística en el mundo del trabajo

# EL EUSKARA, A LA AGENDA DE TRABAJO

ELA y LAB están decididos a que el euskara deje de ser una lengua casi marginal en el mundo del trabajo y las relaciones laborales; por eso van a emprender una campaña de concienciación en las empresas y centros de trabajo, en la que se repartirán carteles y hojas en favor de la normalización del euskara; propondrán que se introduzca en los convenios colectivos una cláusula en el mismo sentido (ver pág. 3), y plantearán en el Consejo de Relaciones Laborales de la CAPV la necesidad de hacer una reflexión y llegar a acuerdos concretos que fomenten el euskara.

Leire Txakartegi, responsable de euskara en ELA, explica la situación que ha llevado a ambos sindicatos a plantear medidas concretas en favor de la normalización lingüística: "Veíamos que el mundo laboral se había quedado muy atrás respecto de otros ámbitos de la sociedad en cuanto al uso del euskara, y dado que una gran parte de la responsabilidad es nuestra, hemos decidido actuar, no sólo para que la gente se euskaldunice, sino para que el euskara llegue a ser un día lengua de trabajo y de servicio".

Estas iniciativas coinciden en el tiempo con el gran acuerdo sociopolítico que está impulsando Kontseilua –busca que se asuman compromisos concretos para avanzar en la normalización– y servirían para complementarlo.

*(pág.3)*

Iritzia Opinión

# LA DIARIA LUCHA CONTRA LA DISCRIMINACIÓN

El 8 de marzo, como día que simboliza la lucha de las mujeres trabajadoras contra las discriminaciones de que somos objeto, suele estar rodeado de actos especiales que quieren resaltar el tono de la protesta. Son necesarios, ya que todo lo que hagamos es poco frente a la situación en que estamos las mujeres. También porque en esta jornada confluyen motivos, colectivos y planteamientos diversos detrás de una misma pancarta y con una misma voz.

Sin embargo, la discriminación está a diario entre nosotras, al igual que nuestra lucha frente a ella también se muestra de forma cotidiana.



En el mundo del trabajo ser mujer es ser de categoría inferior. Una parte importante del trabajo femenino se orienta hacia actividades consideradas subsidiarias. Nuestro salario y condiciones, también. Para algunos, estamos para reforzar el sueldo del cabeza de familia, para aportar un dinerillo adicional, aunque seamos, en muchos casos, el principal o único ingreso de nuestra familia.

Así pasa en el sector de la limpieza, que reúne todos los ingredientes de la discriminación: Trabajo muy feminizado; gestionado a través de la subcontratación; con contratos de trabajo a tiempo parcial, distribuido en varios períodos; salarios y condiciones que no se parecen a los de las empresas titulares del servicio, para las que trabajamos. A ello se une la desconsideración de que somos objeto, incluso como personas.

La lucha cotidiana contra esta injusticia la hace más evidente. Es lo que está sucediendo con los conflictos que mantenemos las trabajadoras de la limpieza de la Residencia municipal San José de Erandio, en huelga desde el 31 de diciembre y quienes limpiamos los edificios municipales de Basauri, que la empezamos el 13 de enero.

En Erandio el desprecio es, si cabe, más sangrante: A todo el personal de la residencia municipal se le aplican condiciones económicas similares a las existentes en Osakidetza. A todos y todas menos a nosotras, las de la limpieza, que nos quedamos con 11.571,24 euros (1.925.292 ptas.) al año, por debajo de 17.122,61 euros (2.848.963 ptas.), que es lo que correspondería a nuestro trabajo. Desprecio al que se suma el desdén del alcalde Mikel Arrieta, comprometido personalmente en mayo y que ahora no quiere cumplir su palabra.

En Basauri se aducen razones presupuestarias para justificar nuestra situación. Justificación que oculta el fondo de la decisión municipal de subcontratar, no por mejora o agilidad organizativa, sino para que los sueldos de las trabajadoras subcontratadas soporten el peso de sus decisiones presupuestarias, situándonos en 6.000 euros anuales por debajo de lo que el propio Ayuntamiento tiene establecido para este trabajo. Además, el alcalde Rafael Ibargüen y la mayoría de concejales se permiten decir que con nuestra reivindicación somos nosotras quienes discriminamos a los colectivos que queden peor que lo que consigamos. Igual trato que el que nos dispensa el Consejero de Trabajo, Sr. Azkarraga que aún no ha contestado a las varias peticiones de reunión que le hemos enviado hace ya un mes.

Son sólo dos muestras. Otras compañeras de otros sectores y pueblos también están en el camino de la lucha diaria contra la discriminación cotidiana. Somos muchas las que conmemoramos todos los días el 8 de marzo.

En nombre de las trabajadoras firman las componentes de los respectivos comités de huelga,

*Marga Olarieta, Rosa Mª Valbuena, Ana Mª Egaña, Teresa Medina, Rosa Mª Larrea, Olga Gutierrez, Carmen Díaz, Fernando López, Mª Carmen Carbia, Vicenta Lastra, Mª Teresa Mendo,*

Egunean Al Día

## Es la primera vez que se constituye un órgano de esta naturaleza en ELA, a raíz de los cambios organizativos de 2003

# CONSEJO COMARCAL DE IBAIZABAL-NERBIOI

**Ibaizabal-Nerbioi ha sido la primera unión comarcal de ELA que ha aprobado su reglamento y ha constituido asimismo su consejo comarcal, que se ha reunido el 5 de marzo en Arrigorriaga. El consejo ha aprobado además una resolución de apoyo a las trabajadoras de limpieza de Basauri, empleadas de FCC, que llevaban, a viernes, 53 días de huelga.**

El consejo, que se reunirá al menos semestralmente, está integrado por los miembros de los comités locales y del comité comarcal, los otros dos órganos que conforman la estructura organizativa de cada comarca. El consejo comarcal tiene importantes atribuciones: ratificará las uniones locales que se constituyan; determinará la orientación general de la unión comarcal dentro de las líneas confederales; aprobará el plan anual de actividades propuesto por el comité comarcal y el informe de gestión del año precedente presentado por el mismo comité, y podrá modificar, a propuesta del comité comarcal, el reglamento de la unión comarcal.

Ante las más de 80 personas reunidas en el consejo de Ibaizabal-Nerbioi, Itziar Larrazabal presentó el propio consejo y explicó los textos cuya aprobación se iba a proponer. El responsable comarcal Donato Caballero presentó el reglamento y las uniones locales que se proponían constituir.

Mikel Salgero, por su parte, analizó el informe de gestión de 2003, en el que destacan los datos de elecciones sindicales, que, pese a la ligera bajada del 0,42% siguen reflejando la hegemonía de ELA en Ibaizabal-Nerbioi, con el 45,49% de representantes elegidos. La afiliación, por su parte, aumentó un 3,45%. En cuanto a la formación de ámbito comarcal, más de 600 personas han participado en cursos de formación sindical y de negociación colectiva; entre ellas, 72 delegadas y delegados jóvenes.

Por su parte, Aitor Garriga presentó el plan de actividades para 2004, que fija objetivos de afiliación, elecciones, organización (secciones sindicales, pymes), negociación colectiva, etc.

Elkarrizketa Entrevista

## Leire Txakartegi, euskara arduraduna ELAn

# EUSKARA LANERA




**Lan munduan euskara bultzatze aldera, ELAk eta LABek hainbat asmo darabilte esku artean. Besteak beste, hitzarmen kolektiboetan hizkuntzari buruzko klausulak sartzea proposatuko dute; kanpaina bati ekingo diote enpresa eta lantokietan, eta EAEko Lan Harremanen Kontseiluan ere euskararekiko ekimenen bat gauzatu nahi dute. ELAn euskararen ardura duen Leire Txakartegiri elkarrizketa egin diogu horri guztiari buruz.**

**–Nondik dator hizkuntzari buruzko kezka hau?**

–ELA eta LAB ikusten genuen gizarteko beste esparruekiko lan munduak eta esparru sozio-ekonomikoak euskararen inguruan hutsune nabarmena zuela, Kontseiluak ere salatu izan duenez. Izan ere, euskara normalizatzeko lorpen nagusia lan harremanetan aurrera egitea litzateke. Eta ez gara soilik jendea euskara erabiltzeko gai izateaz ari; lan- eta zerbitzu-hizkuntza izatera iristea litzateke helburu.

**–Zerk eragin du beste alorrekiko atzerapen hori?**

–Egia da administrazioek ez dutela nahikoa egin honi buruz, eta normalizazio politikak porrot egin duela agian. Baina sindikatuok ere badugu ardurarik, lan merkatuan zuzenean hartzen baitugu parte. Eta orain arte enpresetan, negoziazio kolektiboan, ez dugu erantzukizun zuzenik hartu gure gain; normalizazio dinamikak lan munduan ez dauka beste esparruetako indarrik.

**–Ez al zegoen inongo kezkarik?**

–Bai, han-hemenka langile eta afiliatuek kezka agertzen zuten, baina sindikatuok ez dugu asmatu hori behar bezala lantzen. Urte askotan zer egin ez genekiela ibili gara, eta zerbait egin denean tokian tokiko, banakako langile talde edo enpresariek hartutako erabakien ondorio izan da.

**–Garrantzitsua da ELAk eta LABek gaiari batera heltzea.**

–Horregatik jaso genuen 2003ko negoziazio kolektiboari buruzko akordioan borondate hori: "enpresetan euskararen normalizazioan aurrera egiteko eta horretarako urratsa eraginkorrak emateko garaia da, proposamen eta konpromiso zehatzak ezarriz. Bereziki, eta konpromiso honen marko orokor bezala, sektore eta enpresetako hitzarmenetan euskararen erabilpenaren normalizazioa bultzatzeko akordio interkonfederala proposatzen da", zioen akordioak.

**–Akordio hori lantzen ari zarete?**

–Bai. Aurten ere negoziazio kolektiboan euskararen normalizazioa hedatzeko klausulak sartu nahi ditugu (ikusi azpiko testua), eta gainera Lan Harremanen Kontseilura ere eraman nahi dugu gai honi buruzko kezka, gainontzeko sindikatuekin eta patronalarekin adostasunen bat lortzea aurrerapauso handia bailitzateke. Dena dela, gure ustez orain benetan axola duen esparrua enpresak dira; horietatik hasi behar dugu lanean, urrats zehatz eta neurgarriak horietxetan egin baitaitezke.

**–Hasteko ere, kanpaina batekin doaz ELA eta LAB lantokietara.**

–Hala da. Laster kaleratuko dugun kanpainarekin –kartelak eta eskuorriak zabalduko ditugu– enpresetan euskararen balioa azpimarratuko dugu, adibidez 'inbertsio' ona dela dioen mezua zabalduz. Kontua jendea euskararen beharraz konturatzea da, langileen artean hizkuntzarekiko konpromisoa areagotzea.

**–Konpromisoa aipatu duzu, eta hortara doa Kontseiluak datozen hiletan jorratu nahi duen akordio soziopolitikoa. Horrekin zerikusirik ba al du gure egitasmoak?**

–Bai; nolabait ere, guk sektore, lantoki eta enpresetan akordio horren atal paralelo bat osatzea nahi genuke; hots, Kontseiluaren eta bi sindikatuon helburua uztartzea.

### Cláusula a introducir en los convenios colectivos

Las partes signatarias del presente convenio colectivo sectorial constatamos con preocupación la escasa presencia que el euskara tiene en el mundo laboral. Al objeto de que el proceso de normalización lingüística sea una realidad acorde con la exigencia y evolución de la sociedad en la que están insertas las empresas y trabajadores/as afectadas por este convenio colectivo, nos comprometemos a articular las medidas necesarias conducentes al cumplimiento de tal objetivo.

Por consiguiente, emplazamos a las empresas comprendidas dentro del ámbito de aplicación de este convenio colectivo y a sus representaciones sindicales a que, en el ejercicio de la responsabilidad social que nos corresponde, den pasos prácticos en dicha dirección mediante la puesta en marcha de planes de normalización del uso del euskara.

Iritzia Opinión



# Agoreros

El tándem Correo-Diario nos informa de que –casualmente en vísperas electorales– ha tenido acceso a un estudio del Gobierno vasco que cuestiona la viabilidad de un sistema propio de pensiones. La información es un hito más de la secular campaña del "con la soberanía ibais a comer berzas" con la que nos inculcan el complejo de pueblo subsidiado y dependiente sin otra opción que la de seguir sojuzgado por la Gran España. "¡Viva las caénas!", pues.

ELA y LAB han salido al paso de esta información mediante un comunicado del que merecen destacarse algunas ideas.

La primera, que el proverbio "*odolkiak eta apaizak egiten diren modukoak izan ohi dira*" vale también para estos estudios, ya que los escenarios futuros que se dibujan suelen venir determinados por las hipótesis de las que se les surte. Así, los escenarios en materia de pensiones a veinte o más años son muy diferentes según sean las hipótesis, por ejemplo, de crecimiento económico, evolución del empleo o cotizaciones sociales.

Teniendo en cuenta que en este caso el trabajo lo encarga un gobierno interesado en fomentar los planes de previsión social complementaria, hay razones para pensar que alguna influencia ha tenido esta orientación en las hipótesis y previsiones, al parecer no suficientemente explicitadas, sobre las que se han basado los escenarios futuros.

ELA y LAB se refieren también al hecho de que la protección social sea el único tema que los gobiernos planteen en términos de caja, es decir, en términos de equilibrio entre cotizaciones y prestaciones. Hay otras áreas de gasto público –justicia, policía o infraestructuras, por poner algunos ejemplos– respecto de las cuales los gobiernos no se plantean si son deficitarias, sino si son socialmente necesarias, cuando no si son políticamente interesantes. Los sindicatos reclaman, como es lógico, que también en materia de protección social se parta de la valoración de su necesidad y rentabilidad social para establecer, luego, la forma de proveer los recursos económicos necesarios.

El extenso comunicado sindical termina denunciando la estrategia del miedo respecto de un tema tan serio y tan sensible socialmente como el de las pensiones. Un tema en el que falta voluntad política de asumir un compromiso serio con la justicia social y sobran agoreros.

**G.K.**

astekaria




*Un momento de la manifestación del 3 de marzo en Gasteiz.*

## Gorka Vierge, responsable de ELA en Araba, ante el aniversario del 3 de Marzo

# LA LUCHA CONTINÚA

**El pasado miércoles se cumplieron 28 años de la masacre del 3 marzo de 1976 en Gasteiz en la que resultaron muertos cinco trabajadores por disparos de la policía. Cientos de personas participaron en los actos conmemorativos convocados por los sindicatos ELA, LAB, ESK y STEE-EILAS en el barrio de Zaramaga, donde ocurrieron los hechos.**

**–A pesar de que han pasado muchos años, las exigencias de justicia siguen vigentes.**

–Efectivamente, 28 años más tarde seguimos reclamando justicia. El 3 de marzo de 1976 se convirtió en una fecha negra en la historia de esta ciudad, ya que cinco trabajadores fueron asesinados a sangre fría por la policía mientras defendían sus derechos laborales frente a la soberbia patronal.

IMPUNIDAD TOTAL

Los responsables políticos de la época, Manuel Fraga y Martín Villa entre otros, lejos de arrepentirse por aquella masacre y pedir perdón, se muestran orgullosos del papel que representaron en la llamada transición española y ocupan cargos de alta responsabilidad en el partido que gobierna las instituciones de Araba y del Estado y que no duda en recortar derechos y libertades de forma sistemática. Estos responsables políticos siguen impunes y hasta la fecha no han tenido que depurar sus responsabilidades ante un tribunal. No conseguirán arrebatarnos la memoria de aquellas personas y, desde luego, hemos afirmado que ninguna democracia se consolida perpetuando la injusticia.

Los colectivos que exigen justicia para las víctimas del 3 de marzo son continuamente despreciados por tribunales españoles, y han tenido que emprender el camino de los tribunales de Estrasburgo para tratar de dar algo de luz a aquellos sucesos.

**–En los actos de este año han cobrado protagonismo las luchas obreras que están en la calle.**

–Hoy los trabajadores debemos seguir enarbolando la bandera de la libertad y la de los derechos laborales. Porque frente a esa patronal que trata por todos los medios de aumentar sus beneficios, frente a esas instituciones que dan carta de naturaleza al uso de la precariedad, la desregulación del mercado de trabajo o la privatización de servicios públicos, anteponemos la lucha que están llevando a cabo trabajadores como los de Caballito. Nos corresponde pelear con la dignidad que están demostrando.

**–Precisamente el 3 marzo fue la fecha elegida por los sindicatos ELA, LAB y ESK para celebrar una asamblea conjunta.**

–Es una buena manera de celebrar esta fecha, con un sindicalismo unido y reivindicativo. Frente a una patronal dura como SEA, vamos a luchar con la negociación colectiva para erradicar la precariedad y la discriminación. Dos formas de explotación de nuestro tiempo.




*Argazkian, iazko otsailaren 15ean Bilbon Irakeko gerraren aurka egin zen manifestazioa.*

## Martxoak 20, okupazioaren aurkako eguna

**Martxoaren 20 manifestazioak egingo dira Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan Irak eta Palestinaren okupazioa salatzeko. Bilbon eta Donostian manifestazioak arratsaldeko 5,30etan aterako dira Jesusen Bihotzaren Plaza eta Boulevarretik , Gasteizen 6,30etan Posta Plazatik eta Iruñean 6etan Autobusen Geltokitik.**

**Iaz, martxoaren 20an, Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko tropak indarrez sartu ziren Iraken, estatu hori, munduko pertsonen segurtasuna eta bizia arriskuan jartzen zituzten suntsipen masiboko armak fabrikatzen ari zenaren aitzakiaz.**

## Labur Breves...

### • Maniobras para dividir a las huelguistas de Basauri

Las trabajadoras y trabajadores de FCC que realizan la limpieza de los edificios y dependencias municipales de Basauri, en huelga desde hace dos meses, rechazaron la pasada semana el intento de la empresa de romper la huelga y se ratificaron en su exigencia de un salario en torno a 900 euros netos mensuales (150.000 pesetas), para eliminar la discriminación de que son objeto respecto de quienes hacen su mismo trabajo. Las trabajadoras rechazaron las maniobras de la dirección, cuyo objetivo era desestabilizar la huelga. También refrendaron su confianza en quienes componen el comité de huelga, y acordaron no acudir a nuevas reuniones como la promovida por la dirección de FCC, canalizando a través del comité de huelga todas las comunicaciones o negociaciones.

### • Hitzarmen kolektiboen inguruko batzarra Gasteizen

Ehundaka ordezkarik hartu dute parte joan den azteazkenean ELA, LAB eta ESK sindikatuak negoziazio kolektiboaren nondik-norakoak azaltzeko Gasteizen buruturiko batzarrean. Bilera honetan hiru sindikatuetako arduradun nagusiak izan ziren, eta greban diren Aratubo eta Caballitoko langileek ere protagonismo berezia izan zuten.

### • Más de dos meses de huelga en la residencia de Erandio

Las once trabajadoras de limpieza de la Residencia San José de Erandio denunciaron la actitud el alcalde de esta localidad que "está presionando a la empresa para que bloquee cualquier acuerdo". Además, señalan, "el alcalde no ha cumplido los compromisos alcanzados con la trabajadoras y que posibilitaron la desconvocatoria de los paros durante unos días".

### • Huelga en Aratubo

La totalidad de los trabajadores de la plantilla de Aratubo afectados secundan la huelga convocada por el comité (4 ELA) en defensa del convenio colectivo. La empresa, que cuenta con 71 trabajadores, estará en huelga a turnos completos hasta el 22 de marzo. El comité ha denunciado que en cuatro meses la dirección no ha presentado una oferta creíble a los representantes de los trabajadores, y recuerda que la plantilla de Aratubo, empresa dedicada a la fabricación de tubo soldado, tiene sueldos sensiblemente inferiores a los de otros operarios del sector; por eso, exige un acuerdo que permita equipararlos a los de otras empresas del entorno.

Franqueo concertado
n.° 08/207

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00